



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nola eman diezaguke honek bere gorputza jaten?”

2023ko ekainaren 11
Jaunaren Gorputz-Odola (A)

Joan 6, 51-58.

Neu naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duenak betiko bizia izango du. Eta nik emanen dudana ogia nire gorputza da, mundua bizi dadin emana.

Hitz hauek eztabaida gogorra sortu zuten entzuleen artean. Honela zioten:

Nola eman diezaguke honek bere gorputza jaten?

Jesusek esan zien:

Benebenetan diotsuet: Gizonaren Semearen gorputza jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire gorputza jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta neuk piztuko dut azken egunean. Zeren nire gorputza benetako janari baita, eta nire odola benetako edari. Nire gorputza jaten eta nire odola edaten duena nirekin bat eginda dago, eta ni berarekin. Bizia duen Aitak bidali ninduen eta hari esker dut nik bizia; halaxe, ni jaten nauenak ere niri esker izango du bizia. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalako, haiek hil egin baitziren; ogi honetatik jaten duenak betiko bizia izango du.

Jesus biziaren ogia da. Ogi honetatik jaten dauana betiko biziko da, Jesusek Aitagaz dauan bizitzan parte hartuko dau.

JESUSEN OROITZAPENA BIZIBERRITU

José Antonio Pagola

Mezaren krisia da, segur aski, gaur egungo kristautasunean bizitzen ari garen krisiaren ikurrik adierazgarriena. Gero eta begi-bistagokoa da: eukaristiaren errituala leial betetzea, mendetan barna eratu izan den bezala, ez da aski Kristorekiko bizi-harremana elikatzeke, gaur egungo Elizak behar duen moduan.

Hainbat kristauk igandeko meza alde batera uztea, gazteen absentsia orokortua, ospakizuna ulertzeko eta dastatzeko gai ez direlako, leialtasun eredugarriz mezara joaten jarraitzen dituztenen kexuak eta eskakizunak: hori guztia ari zaigu oihu egiten, esanez Elizak bere elkartearen erdian sakramentu-esperientzia biziagoa eta sentituagoa behar duela.

Halere, ematen du inor ez dela sentitzen gertatzen ari denaren erantzule. Inertziaren, koldarkeriaren edo alferkeriaren biktima gara. Halako batean, agian ez hain berandu, Eliza ahulago eta pobregago baina eraberritzeko gaiago izango den batek ekingo dio eukaristiaren errituala eraldatzeari, eta hierarkiak baitaratuko du bere apostolutar erantzukizuna erabakiak hartzeko, gaur egun planteatzera ere ausartzen ez garen erabakiak bestalde.

Bitartean ezin geldi gintezke besoak tolesturik. Egunen batean Jaunaren Afariaren berrikuntza liturgikoa gertatu bada, kristau-elkarteetan beste giro bat sortu beharrean gara. Askoz ere era biziagoan sentitu beharko genuke Jesusen oroitzapena egiteko premia; baita oroitzapen hori geure esperientzia erlijiosoa sakon eraldatzeko oinarri bihurtzea ere.

Azken Afaria Jesusen keinu pribilegiatua da. Hartan, heriotza hurbil sumaturik, bere bizitza osoa zer izan den eta gurutzean hiltzea zer izango den laburbildu nahi izan du. Afari hartan bildu eta jarri zuen agerian bere existentzia guztiaren eduki salbatzailea: Aitari dion maitasuna eta gizakiari dion errukia, azkeneraino eramana.

Horregatik da hain garrantzizkoa eukaristia bizi-bizi ospatzea. Hartan Jesus gure artean izatea gertaberritzen dugu. Jesusek, Aitaren egitasmoari bete-betean eta leialtasun biziz atxikirik, bere bizitzaren azkenean bizi izan zuena berregitea dugu esperientziarik pribilegiatuena; horren premia dugu Jesusi jarraitzea eta Erreinuari bideak irekitzeko gure lana elikatzeke.

Barruagotik hartu behar dugu Jesusen agindu hau: «Egizue hau nire oroigarri». Zailtasun, oztopo eta egoskortasunen artean, gogor jokatu beharra dugu ahaztearen aurka. Egiatasun eta zinezkotasun handiagok egin behar dugu Jesusen oroitzapena. Eukaristia ospatzea biziberritu eta eraberritu beharra dugu.